

## PRENTSA OHARRA

### **BILBOKO UDALAK BURUTZEN DUEN GENERO INDARKERIAREN AURKAKO PREBENTZIO ETA ESKU HARTZE PLAN INTEGRALARI SARI BERRIA EMAN DIOTE**

- Osasun Ministerioak, Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) koordinazio- eta detekzio-saileko genero-indarkeriaren aurkako praktika onen saria eman diote “Bilbon, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean 0 tolerantzia” izeneko planari.
- Sari hau Nazio Batuek maiatzean zerbitzu horri emandako sariari gehitu zaio.
- Proiektu honen sailen eta erakundeen arteko koordinazioak, laguntza behar duten genero-indarkeriaren biktima guztiei erantzun arina, azkarra eta eraginkorra ematea ahalbidetzen du.

Bilbon, 2013ko otsailaren 25ean. Osasun Ministerioak, Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuek eta Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioak (FEMP) gaur Madrileko Gizarte eta Berdintasun Zerbitzuen Idazkaritzan “Bilbon, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean 0 tolerantzia” zerbitzuari eman diote saria. Zerbitzu hau Bilboko Udalaren koordinazio- eta detekzio- sailak burutzen du eta genero-indarkeriaren aurkako udal-praktika onen Lehiaketaren lehenengo edizioaren garailea izan da.

Sari honen helburua, genero-indarkeriaren kontrako borrokaren esperientziak trukatzea eta jarduera eraginkor eta berritzaileenak ezagutzea da. Gainera, hau, maiatzean Nazio Batuek genero-indarkeriaren kontrako prebentzio eta esku-hartze programa integralari emandako sariari gehitu zaio.

Udaleko programaren zeregin nagusia gizon eta emakumeen arteko berdintasuna babestea eta era berean, eskura dituen tresnez baliatuta oraindik dauden desberdinkeria eta batez ere genero-indarkeria arintzea da. Ardatz nagusiak honako hauek dira:

- Herri-erakunde eta sailen arteko koordinazio hobea.
- Esku-hartzeko udal programara sartzen diren biktimen kopurua handitu egin da.
- Biktimen seme-alaben arreta, genero-indarkeriaren biktima zuzen gisa.
- Prebentzioaren aldeko apustua egiten du, gatazka eta genero-indarkeriaren egoerak errotik ateratzeko tresna egokia delakoan.

Praktika onen lehiaketaren lehenengo edizio honetan parte hartu duten beste Udal batzuk

honako hauek dira: Jerez de la Frontera, Portugalete, Castrillon (Asturias), Tenerife, Cuntis (Galizia), Valentzia eta Santander.

**UDALA . AYUNTAMIENTO**

Prentsa Kabinetea - Gabinete de Prensa E. Erkoreka Plaza, z/b 48001 Bilbao

Tfn: 94 420 52 61 / 94 420 52 15 Faxe: 94 420 52 16 H. elek: [prensa@alcaldia.bilbao.net](mailto:prensa@alcaldia.bilbao.net)

[www.bilbao.net](http://www.bilbao.net)